

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.**

---

Joan den irailaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak onartu zuen honako erakunde hauen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena: Arabako Foru Aldundiaren (AFA), bere foru erakunde autonomoen (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gaztediaren Foru Erakundea eta Arabako Foru Suhiltzaileak) eta bere 8 sozietate publikoen eta hauen foru fundazioena (Artium, Santa Maria Katedrala, Añanako Gatz Harana eta Kirolaraba), 2017ko ekitaldiari dagokiona.

Epaitegiak azpimarratu du **finantza egoera 2017ko abenduaren 31n ona da**. Sarrera arruntak 2017rako aurrekontu egin direnen aldean nabarmen hobetu dira eta aurrekontu arruntaren betetze maila guztizko kreditua baino txikiagoa izan da; horrek guztiak ekitaldiaren beraren eragiketa arrunten emaitza 83.821 mila euro izatea ekarri du (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoko erabakien ondorioak kanpo utzita).

Gainera, adierazi du Kontu Orokorrean jasotako **Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari** buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzaizela eta horiek **ez dutela salbuespenik adierazi**.

Bai Aldundiak ba erakunde autonomo eta sozietate publikoek **zuzentasunez bete dute** ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz Diputatuen Kontseiluak 873.903 euroren gastuak baliokidetu dituen, Kontuhartzaitzak txosten negatiboa jaulkia zuela. Honez gain, Gizarte Ongizateko Foru Institutuak 3 kontratu gauzatu ditu ezargarriak zitzaizkien prozedura ireki edo publikotasundun negoziatuak saihestuta. Indesak 2010ean 9 hornidura kontratatu ditu publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe eta kontratu bat luzatu du ezarritako gehieneko epea gaindituta. Azkenik, Añanako Gatz Harana Fundazioak esleitutako kontratu batek igoera esanguratsua izan du egikaritzan.